



MUSIKA

Jarrera

IKER BARANDIARAN

Bizitzak buelta ugari ematen ditu, ugari eta ustekabeak. Zea Mays-en sorrera oso hurbiletik bizi izan nuen arreba zale amorratua izanagatik, baina gerora haienganako arreba galdu nuen nolabait, lanean jarraitzen zutela jakinda eta horregatik pozik, baina beste talde batzuei erreparatuz. Duela urte batzuk, baina, zuzenean ikusi nituen, eta hura zaplastekoa! Taldetzarra, betea eta irmoa erabat. Gerora, pandemiaren hasieran etxean *Atera* diskoan erreparatu nuen txundituta, a ze lana! Eta paradoxak paradoxa, pandemia ilunean ikusi nuen lehen kontzertua, sinesgaitza, haiena izan zen, Victoria Eugeniakoa, eta a ze kontzertu, ze hunkidura, eta zenbat emozio bizi izan genituen –guztiok-oraindik arrotz genituen maskara haiek ia bi orduz jantzita-.

Eten luzea egin behar izan du taldeak, baina bizitza –beti bizitza– ospatu beharra gailendu da oraingoan ere. *Atera*-n protagonismoa hartu zuten sinte-ak gelditzeko etorri dira, eta oraingoan ere baliatu dituzte lau pizti hauek kantuei gorputz borobila

lagoa emateko. *Adore*-k dauka taldearen DNA erabat itsatsita: suitzarraren pareko erritmoa, doinu itsaskor eta sentikorak eta kantu borobilak; *Zuk borroka hasi* pausatuagoa da baina irmoa, eta murgiltzen da post-punk-aren eta Alemaniako aitzindarien erritmoetan. *Kemena*-k, aldiz, uztartzen ditu pasarte orkestralak, rockeroak eta dantzagarriak. *Inondik inora*-k gitarra sarkor eta distiratsua ditu, 90eko hamarkadaren gerizpean. *Kuraia* da zerutiarragoa, baina intentsitate, kadentzia eta dramatismoz bustiz doa. *Corazón de tango* da bocho-ko klasikoa sinte-ekin eta gitarrekin biziberritzeko ariketa (eta emaitza) aberatsa. *Adore, kemena, kuraia* da metalero pisutsu jaio eta post-punkaren erlojuak gidatzen duen gezia. *Ez naiz ni* goxo pausatuaren Rozalen batu dute haiekin. *Ez zaitetz sartu* deiadarra elektronika minimalistak eta rock indartsuak arintzen dute. Eta, azkenik, *Bizia* da ospakizunaren rave-a. Izan ere, lehen eta orain, Zea Mays-en kantu bakoitza, ezaugarri eta arrazoi desberdinengatik, ospakizun bat da. ●



ADORE KEMENA KURAIA
ZEA MAYS
 GARDEN RECORDS, 2022



EIDER ITURRIAGA

EuskarAbentura

espedizioe

2023
IZEN EMATE EPEA IREKITA!
www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak

Hedabide laguntzaileak